

Banka negozioaren bilakaera positiboak sendo orekatu du hirugarren hiruhilekoan ezohiko emaitzarik ez egotea

Kutxabankek 176 milioi euroko irabazia lortu du, % 10,3 handiagoa

- Erritmo bizia izan du produktu, zerbitzu eta aseguru berrien kontratazioak, horrek banka negozioa % 8,3 hazi du, nahiz eta interes tipoen bilakaerak negatiboan jarraitu
- Bezeroen baliabideak % 8 igo dira, zorro delegatuek eta aurreikuspen-planek bultzatuta, hauek administratutako baliabideen % 35 osatzen dute jadanik
- Hipoteka-maileguen produkzio berria % 36 igo da, eta % 10 mailegu pertsonalena. Taldearen mailegu-inbertsioa % 7,5 hazi da
- Ustiapen gastuetan 30 milioi euro gutxiago erabili dira, eta zuzkiduren maila garaiak bere horretan jarraitu du, 215 milioi bideratu baitira arlo honetara
- Berankortasun mailak % 1,94ra arte hobetzen jarraitu du, alorreko onenetakoa da, eta zalantzazko aktiboen bolumena % 12 hobetu da aurten, epealdiaren amaieran 968 milioi eurotan kokatuz

2021eko urriaren 28an. Kutxabankek **176,3 milioi** euroko irabazi garbia izan du 2021eko irailaren amaieran. Hiruhileko honetako gakoetako bat **banka negozioaren bilakaera ona** izan da, honen eraginez emaitzen kontua % **10,3** hazi baita iazko epealdi beraren aldean. Honela, sendotasunez orekatu ahal izan da aparteko emaitzarik ez zenbatu izana, iazko irailean gertatu zen bezala.

Izan ere, 'core' sarrerek sendo jarraitu dute, interes tipoek egiten duten presio negatiboaren aurrean. **Zerbitzuengatik, balantzetik kanpoko baliabideengatik eta aseguruengatik zenbatutako sarrerek** gainditu egiten dituzte emaitzen kontuari interesen marjinak egiten dioten ekarpena. Izan ere, 'core' banka negozioko sarreraren % **51 baino gehiago** dira dagoeneko, Kutxabankek sarreraren aniztasuna lortzeko duen gaitasunaren erakusle.

Erakundeak bere merkatu kuotak irabazi ahal izan ditu, eta hiruhileko honetarako finkatu ziren helburuak bete. Erabakigarriak izan dira **balantzetik kanpoko baliabideen hazkundea** -batik bat inbertsio fondoena eta aurreikuspen produktuena-, eta funtsezkoak diren produktuen kontratazio maila handia, funtsean **hipoteka maileguena eta mailegu pertsonalena**.

Negoziorearen bilakaera onarekin batera, **ustiapen gastuak nabarmen murriztu** dira, arlo honetan **30 milioi euro gutxiago** gastatu baitira.

Hirugarren hiruhilekoan ere urte hasieratik ekonomian nabarmenak izan diren berreskurapen zantzuak antzeman dira, noranzko hori benetako datuekin baieztatzea gelditzen den arren. Europar Batasuneko laguntza fondoak iristen direnean jarduera ekonomikoa sustatuko da, baina energiaren kostu handiagoak eta lehengaien gabeziak berreskurapena eragotzi lezakete. Argi dago interes tipoek epe laburrean negatiboan jarraituko dutela, hobetzeko zantzurik ez baita ikusten.

Testuinguru honetan, nazioartean berriro goraiatu da Kutxabanken finantza-sendotasuna. EBZ-k eginiko **estres frogetan** CET1 'Fully Loaded' eta palankatze-ratio onena duen erakundea izan da, baita frogak jarri zuten balizko baldintza gogorrean ere. Aintzatespen honekin batera, **nazioarteko rating agentziek** Kutxabanken negozio-ereduaren sendotasuna aintzat izan dute beren kalifikazioetan.

Jasangarritasunaren esparruan, Kutxabankek arrakasta izan du 500 milioi euroko balioarekin egin duen lehentasunik gabeko **senior zor berdearen lehen jaulkipenean**, eskariak jaulkipenaren bolumen osoaren eskaintza aise gainditu baitu, beti ere **ESG politikekin** duen konpromisoaren haritik.

Zorro delegatuak % 40 hazi dira

Urte osoan bezala, administratutako baliabideek hazten jarraitu dute, neurri handi batean balantzetik kanpo dauden baliabideen bilakaeraren ondorioz. Iazko irailaren aldean **% 8** hazi dira, eta epigrafe hori **71.883** milioi eurora iritsi da.


Atal honen hazkundea etengabea izan da azken ekitaldietan eta pandemiak sortutako krisiaren ondoren askoz ere nabarmenagoa izan da. Kutxabank Taldeak merkatuaren eta bezeroen konfiantza eskuratzen jarraitu du, eta Taldeak **sektorearen buruan** jarraitu du inbertsio-funtsetako harpidetza garbietan. 2021. urte osoan zehar harpidetza garbi gehien izan dituen **hirugarren taldea** izan da, **2.057 milioi** euroko aktiboekin.

Deigarria da, halaber, 2019az geroztik, inbertsio fondoan merkatuan lortu diren izenpetze garbi guztien % 20 Kutxabank Taldean sartu dela.

Aipamen berezia merezi dute Kutxabankeko **diru-zorro delegatuek** ere, Erakundearen aurrezki-inbertsioaren kudeaketaren eredu nagusia izanik. Inbertsio mota hau **2.800 milioi** euro baino gehiago hazi da 2020. urtearekin alderatuta, beraz **% 39,6** hazi da, eta Talde osoak kudeatzen dituen fondo guztien % 80 bateratzen du.

Kutxabank Taldeak, egun, **20.306 milioi** euro kudeatzen ditu inbertsio fondoetan, eta bere merkatu kuota **% 6,62ra** arte igo du.

Inbertsio fondoaren merkatu-kuotaren bilakaera (%)



Pentsio planen hazkundeak, batik bat Taldeak kudeatzen dituen BGAE-ek, hainbat errekor gainditu du epealdi honetan. Hauen ondareak **8.696 milioiko** gehiengo historikoa jo du, iazko irailarekin alderatuta **% 6,46** hazita. Ondorioz, bere merkatu kuota **% 48,8ra** iritsi da (ekaineko datua).

Mailegu kuotak gora egin du

Negozio-sareek **45.644 milioi** euroko kreditu-inbertsio produktiboa lortu dute, hau da, **% 7,5eko** igopera.

Txikizkako Bankan, hipoteken kontratazio maila handiak azken 12 hilabeteetako maileguen saldoa **% 4** igoarazi du. Horrez hain, Enpresen eta Erakundeen Bankak izan duten hazkundeak, **% 16** bultzatu dute **Handizkako Bankan** zenbaturiko eragiketen bolumena.

Kutxabanken txikizkako sareak bere jarduera komertzialaren bizitasunari eutsi ahal izan dio lehiakortasun handiko testuinguruan, eta hiruhileko honetarako ezarri ziren helburuak gainditzea lortu du hipoteken produkzio berrian, kontsumorako maileguetan, baliabideetan eta aseguruaren jardueran.

Bi urte dira Kutxabank hipoteken merkatuan errekorrak gainditzen hasi zenetik. Epealdi honetan **% 35,7** hazi da mailegu berrien kontratazioa, eta 2019ko irailaz geroztik -hau da, pandemia hasi aurretik- lortutako hazkundera **% 34,5ekoa** izan da.

Gaur egun, Euskadiko mailegu-hipotekario berri guztien **% 45,6** Kutxabankek du, **% 17,6 Andaluzian**, eta **% 10 Espainia osoan**.

Kontsumorako maileguen bilakaera ere nabarmentzekoa izan da hiruhileko honetan, iazkoaren aldean **% 9,6** hazi baita. **Merkataritza Maileguek** azpimarratzeko hazkundera izan dute, **% 39** igota.

Kutxabank Segurosek bere jarduera komertzialean **bilakaera bikainarekin** jarraitu du urteko lehen bederatzi hilabeteetan, hazkunde nabarmena lortu baitu produkzio berrian, bai polizetan nola primatan.

Aseguruen jarduerak banka-negoziari egiten dion ekarpen trinko eta sendoa erakusten du irailera arte merkaturatu diren poliza berrien kopuruak, **100.000tik** gora. Aseguruek sortutako sarrerak **% 12,4** hazi dira.

Enpresetako inbertsioa indarra hartzen ari da

Enpresen alorra **osasun ekonomikoa berreskuratzen** ari dela sumatzen da hainbat adierazletan, esate baterako esportazioen hobekuntzan, eta hori nazioarteko negozioari lotutako hainbat eragiketatan islatu da.

Enpresen alorrean, **aktibo finkoetako inbertsio** berria indarra hartzen hasi da, **% 56,5** hazi baita, **1.270 milioi** euro lortu arte. Jarduera industrialia bere onera datorrela erakusten du, adibidez, industriako baliabide berriak abian jartzeko eta egitasmo berrien lizitaziorako **abal berrien** eskaria handitu izanak, iazko irailaren aldean **% 6,7** hazi baita.

Ildo positibo horren haritik, salmentekin harreman zuzena duen **deskontu komertziala** **% 27,9** igo da.


Next Generation laguntzen baitan, Kutxabankek bezero dituen enpresei eskaintzen dizkien arreta-zerbitzu zehatzetan hainbat eskari jaso dira, Europak bideratutako laguntzak jaso ahal izateko egokitasunari buruz galdetuz. Ehun produktiboaren eskuetan jarri duen 2.000 milioi euroko finantzazioarekin batera, finantza Taldeak tresna jakin batzuk abiarazi ditu enpresa bakoitzaren behar eta aukeretara egokitzen diren laguntzak bilatu eta aukeratzeko.

Berankortasun tasa, hobetzen


Zalantzazko aktiboen saldoa gutxitzen jarraitu du Kutxabankek. Murrizketa guztira **131 milioi** eurokoa izan da urteko lehen bederatzi hilabeteetan, eta **968 milioi** eurotan kokatu da zalantzazko aktiboen saldoa, duela urtebete baino **% 18,6 beherago**.

Berankortasun-ratioak hobetzeko joeran jarraitu du eta **% 2ko** kotatik behera jaistea lortu du, izan ere, epealdiaren amaieran **% 1,94**ean kokatu baita, Kutxabankek bere ibilbide osoan lortu duen indizerik txikiena. Jaitsiera horrek **oinarrizko 39 puntuko** beherakada esan nahi du bederatzi hilabeteetan. Datu hori ona da sektoreko batez bestekoarekin alderatuta, abuztuan **% 4,43** izan baitzen.

Berankortasun Ratioa (% abalekin)



Zalantzako aktiboen bilakaera (MME, abalekin)



Partikularren zorroko % 3k nolabaiteko luzamendua izan du pandemia hasi zenetik, eta Espainiako finantza-sektorearen batez bestekoaren erdia da hori. **Luzamendu-zorroa** ia osorik epemugara iritsi da dagoeneko (% 95), eta berandutze-ratioa % 3,6koa da, alorreko berankortasunaren oso azpitik.

Bestalde, zalantzazkoen estaldura-ratioa, gainbegiratze-gomendioen aplikazio aurreratuan kendutako kapital-estaldurak gehituta, % **93,5ra** igotzen da, eta hori Espainiako finantza-sistemako altuenetako bat da, kontuan hartuta Taldeak duela sistemako hipoteka-zorroaren ehunekorik handiena.

Taldearen guztizko kaudimen-koefizientea eta Core Tier I ratioa % 17,6koak izan dira.

% 20 salmenta digital gehiago

Kanal digitalen bidez kontratatu diren produktu eta zerbitzuak % **20** hazi dira, eta igoera nabarmena izan du bankuko produktuak eta zerbitzuak bide digitaletatik kontratatzeke ohiturak, halaber eta sinatutako hipoteken, txartelen, inbertsio-funts eta -planen eta kontratatutako kontsumo-maileguen kopuruak.

Kontsumorako maileguen kasuan, egituratze digitalak % **25** hazi dira, eta sinatu diren eragiketa guztien % **35** dira dagoeneko.

Kutxabanken banka digitalak eskaintzen dituen aukera anitzeki esker, zerbitzu hau erabili ohi duten bezeroen kopuruak hazten jarraitu du. Gaur egun, Kutxabanken bezero guztien % **56 erabiltzaile digitalak** dira.

Emitzen kontua

Emitzen kontuan, **banka-negozioaren 'core' sarrerek % 8,3ko** hazkunde esanguratsua izan dute, guztira **861 milioi** eurokoa, batik bat **zerbitzuen sarrerek** eta **aseguruen jardueratik eratorritako sarrerek** sustatuta, biak batera **% 17,9** hazi baitira.

Interes tipoen bilakaerarengatik oztopatuta jarraitzen du Interesen Marjinak, hauek etengabe negatiboan jarraitzen baitute, eta **% 0,3 arinki** behera egin du. Aseguruen negozioaren ekarpena **% 12,4** handitu da, guztira **102 milioi** eurokoa izan baita.

Datu hauen arabera, banka negozioaren 'core' sarrera gehienak, **% 51 baino gehiago**, zerbitzuen eta aseguruen sarreretatik datoz, interesen marjinak egiten duen ekarpena gaindituz. Gainera, **administrazio-gastuen % 106** osatzen dute.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikariak ohiko sendotasuna izan du, eta **37,7 milioi** eurokoak izan dira dibidenduetatik eratorritako sarrerak eta bazkideen ekarpenak.

Horrez gain, **bestelako ustiapen gastuen** partidak negatiboan jasotzen ditu Taldeak Erresoluzioko Funts Nazionalari eginiko ekarpenen kostua, ekainean zenbatu zena, bai eta geroratutako aktibo fiskalei lotutako tasena edota bezeroen gordailuen gaineko zergarena.

Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina 864,4 milioi** eurotik gora kokatu da, **% 7,1** handituta.

Finantza erakundeak **ustiapen gastuak murrizteko ahalegin** handia egiten jarraitu du, zuzkidurak sendotu dituen bitartean.

Ustiapen gastuak iazkoak baino **30 milioi** txikiagoak izan dira, honek **% 6,3ko** hobekuntza ekarri du. Honela, **Ustiapen Marjina 420,7 milioi** eurokoa izan da, **% 26 hobe**a.

Halaber, Taldeak izaten duen zuhurtzia goreneko irizpidearen haritik, mailegu zorroaren eta bestelako aktiboen estaldurarako **saneamenduen** maila egonkor mantendu da, eta atal honetara berriro **214,7 milioi** euro bideratu dira. Iaz baino **% 22** gutxiago da.

Emitzen fiskalitatea aintzat izanik, Taldearen irabazi trinkoa **176,3 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **% 10,3** handiagoa.

Emitza eta banka-negozioaren aldagarri nagusiak aztertu ondoren, Erakundeak **urte amaierarako ezarri zituen aurreikuspenak hobetzeko** aukera ikusten du.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2021eko iraila

Miloi eurotan	2021 iraila	%Δ
Interesen Marjina	418,2	-0,3
Zerbitzuen eta aseguruen sarrerak	442,8	17,9
Banka negozioaren 'core' sarrerak	861,0	8,3
Dibidenduak eta baliokidetasunak	37,7	-2,9
ROF	1,3	-141,1
Beste Ustiapen Gastuak	-35,6	48,6
Marjina Gordina	864,4	7,1
Ustiapen Gastuak	443,7	-6,3
Ustiapen Marjina	420,7	26,0
Saneamenduak eta narriadurak	-214,7	-22,6
Beste irabazi eta galerak	36,0	-76,6
Zergen aurreko irabazia	241,9	15,3
Zergak eta bestelakoak	-65,6	31,3
Taldearen emaitza	176,3	10,3